

ORIO

Gastronomia eta aisialdia uztartzen ditu Bisigua Orio Estilora Jaialdiak

Bost otorduetarako 1.000 txartel jarri ziren salgai eta guztiak saldu dira jada

:: DV

ORIO. Orain arteko edizio guztietan bezala, Bisigua Orio Estilora jaialdirako Udalak egokitu duen Herriko Plazako 'jatetxea' beteta izango da. 1.000 txartel jarri dira salgai, guztira bost otorduetarako, eta denak saldu dira. Udalak adierazi duenez, «ezin dugu jende gehiago hartu, batzere ere bi arrazoiengatik: batetik, Orioko plazak espazioa mugatua duelako, eta bestetik, zerbitzuaren kalitatea bermatu nahi dugulako, eta 200 mahaikidetik gora kalitate hori ezingo genuke eman».

Otorduetarako txartelak ahituta egonagatik ere, Orioko Udalak «herri-errotortzeko» gonbita egin die inguruko herrietakoiei eta bisitariari, Bisiguaren Festaren programak aukera ugari ematen dituelako, gastronomia eta aisialdia uztartzeko: «Orion edozein izango da ongi etorria. Bisigua Orio Estilora jaialdirako osatutako egitaraua guztien gusurakoa izatea espero dugu. Horretan ahalegindu gara behintzat, adin tarte zabala hartzen duen egitaraua prestatzea izan baita gure helburuetako bat».

Pintxo-pote zirkuitua

Lau eguneko programan, nola ez, pisu handia izango dute ekitaldi gastronomikoen: herriko tabernarien elkarlanean antolatutako pintxo-pote zirkuitua, Orioko elkarte gastronomikoen arteko bisigu lehiaketa, hegaluze erreka, marmitako erraldoia... Gastronomiaz gain, bestelako ekitaldiak ere izango dira, besteak beste, atzo eguerdiko udaleku



Inaugurazio. Ekitaldiko omenduak, parrilleroak, antolatzaile eta udaleko ordezkariak, ostegunean.

irekietako haurren mazarrien erakusketa edota biharko Ori-ibaian egingo den KAE 1 ligako estropada.

Inaugurazio ekitaldia

Bisigua Orio Estilora jaialdiaren 9. edizioa ostegunarekin hasi zen. Jaialdiaren irekiera arratsaldeko 20.00etan izan zen eta parrilleroak izan ziren protagonistak: Katxiña jatetxeko Joxe Miel Zendoia, Xixario jatetxeko Luis Mari Uranga eta Joxe Mari erretegi Mikel Manterola. Ekitaldian parte hartu zuten Egunsenti otxoteak, Pello eta Nikolasa erraldoiek eta Harribil dantza taldeak. Horiez gain, bertan izan ziren Jose Angel Zaldua, herriko alkatea, eta Lour-

des Salsamendi, Kultura eta Turismo Batzordeko presidentea eta alderdi guztietako ordezkariak.

Aurreko edizioan hasitako ekimenarekin jarraituz, aurten ere, Bisiguaren Laguna oroigarriak banatu dira inaugurazio ekitaldian. Xixario eta Katxiña erretegiak emakumeak, Lucia Garcia, Pilar Etxezarreta eta Mari Carmen Atxega omendu zituen Udalak, alde batetik, eta Richard Oribe igerilari donostiarra, bestetik.

Lourdes Salsamendik omenduen meritua zerrendatu zituen. Xixario eta Katxiñako emakumeekin hasi zen: «Xixariok 50 urte bete berri ditu apirilean, ibilbide oso opa-

roa eginez. Bertan urte askotan itzalean lan egiten aritu den eta ari den Lucia Garcia arrakasta horren parte da, zalantzarik gabe, eta aitorpena merezi du. Ildo berean, Katxiña erretegi bere 37. urteurrenean murgilduta dago eta horien ibilbidea ere txalotzekoa da. Bertan aritzen diren Pilar Etxezarretak eta Mari Carmen Atxegak omenduak izateko meritua nahikoa egin dute, hasierahasieratik egon baitira gau eta egun, lanean. Ezkutuan lanean aritu diren emakumei esker erretegi horiek iritsi dira gaur egun direna izatera».

Igerilari donostiarra goratu zuen jarraian: «Richard Oriberen kirol

Concurso entre las sociedades y regata de la Liga ARC

El programa de la Fiesta del Besugo prosigue hoy, sábado, con la tercera jornada, que arrancará a las 11:00 con la degustación de sidra Saizar y los talos en la herriko plaza; a las 12:00 del mediodía dará inicio el concurso de besugo entre las sociedades gastronómicas; a la misma hora, se pondrán a la venta pinchos de bonito a la parrilla con la colaboración de Eusko Label, con las raciones a dos euros. A las 13:00, dará inicio, en la ría, la novena regata de la temporada de la Liga ARC, con la participación de la segunda trainera masculina de Orio, que este año entrena Iñaki Errasti. Hasta la fecha, Ondarroa, Getaria y Donostiarra parecen las más fuertes y las favoritas para hacerse con IX Bixigu Eguna Bandera. A partir de las 14:00, se abrirá el comedor para una nueva comida. Por la tarde, a las 20:00, habrá sidra y talos en la plaza y, a las 21:00, las cenas de esta penúltima jornada.

ibilbidearen inguruan orain arte esandakoaz gain, ezer gutxi esan daiteke, ikaragarria delako. Kirol munduaz haratago helaraztea lortu duena nabarmendu nahi dugu. Inspirazio iturri da guztientzat, eredia, energia positiboa helarazten duen pertsona. Berarentzat ez dakit, baina guretzat ohorea da Bisiguaren Laguna oroigarria ematea».

Inaugurazio ekitaldia amaitu bezain laster zabaldu zen 'jatetxea'. Ordurako hiru parrilleroek eta laguntzaile taldeak prest zeukaten guztia. Honako hau izango da menua bost otorduetan: Munduate piperrak (Ibarrako piperrak), Jabugo urdaizpikoa, tomate entsalada hegaluzearekin, Sartagudako zainzuriak, bisigua, parrilan erretea, eta postrea, edaria eta kafea.

ZESTOA

Uztapide bertso-paper sariketa eta bertso bazkaria antolatu ditu Errallak

Bertso bazkaria hilaren 24ean izango da Jubilatuen tabernan

:: K. ARRIZABALAGA

ZESTOA. Uztapide bertso-paper sariketa eta bertso afaria antolatu du Zestoako Erralla Bertso Eskolak.

Bertso-paper lehiaketa gazteei (16 urte arte) eta helduei zuzenduta dago: gazteek 4 eta 8 arteko bertso lana aurkeztu beharko dute, eta hel-

duek 6 eta 12 artekoa. Lanak aurkezteko epea bihar, uztailak 17, amaitzen da. Erralla bertso eskolako postontzian bota edo erralla-bertsoeskola@hotmail.es helbide elektronikora bidali daitezke.

Parte hartzaile guztiei, uztailaren 24an antolatuko den bertso bazkarirako txartel bana oparituko zaie. Bazkaria Jubilatuen tabernan izango da, eta bertan, Ohiana Iguaran eta Iñaki Apalategi bertsolariak arituko dira. Sarrerak Koiote, Fati



Iguaran eta Apalategi bertsolari gazteak arituko dira bertso bazkarian.

eta Jubilatuen tabernan eskuratu ahal dira, 25 euroren truke.

Erromeri-afaria

Uztailak 22, ostirala, erromeri-afaria



izango da Jubilatuen tabernan. Trikitilari gisa Izer eta Alabier bikote ezaguna arituko dira. Afarirako txartelak Jubilatuen tabernan bertan eskuratu ahal izango dira (20€).

DEBA

La Diputación crea un proyecto para mejorar el Camino de Santiago

:: ANDER SALEGI

DEBA. Para solucionar los problemas del cruce de la carretera N-634, la Diputación Foral de Guipúzcoa ha decidido poner en marcha un proyecto, con el objetivo de mejorar la seguridad vial de este tramo mediante la ejecución de un trayecto peatonal protegido para los usuarios del Camino de Santiago. Los trabajos consistentes en habilitar las pertinentes medidas de protección para los usuarios del Camino del Norte, de manera que se mejore la seguridad del camino.